

GOSE GARA

Aurrerapen aundiak agertzen dauzan gaurko mundu onetan daukagun arazorik mingarrinetariko bat gosearena da, zalantza barik.

Gugaz batera mundu onetan bizi diran 4.000 milloi biztanletatik, egunero 100.000 ilten dauz goseak eta 700 milloi dira bear dan lez janaritu barik bizi diranak.

Eta ori begien aurrean ikusten dogun gizonen aldi onetan munduan egiten diran guda-eralgiteak urteko 117 billoi pezetakoak dira.

Olako mundu zuzentasun-bako onetan ezin daikegu esan gutariko bakoitza be errubakoak garanik: Guk zer-jan eta zer jantzi geiegi ba'daukagu, gose diranai eta billosik dagozanai kendu dautsegulako da: guk jakintzarako ta lanbiderako erreztasuna izan ba'dogu, olako erreztasunik izan ez dabenen kontura lortu dogu elburu ori.

Eta zer egin daikegu arazo oneri urtenbidea emoteko?

Urtenbidea geure eskuan eta geure aukeran ba'lego, bear ba'da, aletin geiago egingo genduke, baiña zori txarrez ez da ori gizon bakar baten okerkeria gizadirik geienaren pekatua baiño.

Dana dala, urtenbide osorik aurkitu ezin ba'dogu be, geure alegiña egin bear dogu eta aletin ori bideratzeko aukera bat Gosearen Aurkako Ekiñaldia-ren eguna dogu eta egun orretan «Manos Unidas» edo «Esku Emonak» erakundeak dakarsku aukera ori.

Erakunde au ez da beste erri edo eleiz-erakunde baten ardurapekoa, eleiz eta erri-aldetik nortasun osoa daikan erakundea baiño.

Erri atzeratuak aurreratzeko diran lurgintza, osasuntza, jakintza eta aurrerapenerako eginbideak, orretan trebeak diranak eginda, onartzen dauz eta eginbide orreik aurrera ateraten diarduenai zuzenean, bitarteko barik, bialtzen dautse laguntza, Zaingo ta Zabalkunderako % 3,6 erabilten dala.

Il onetan, zezeillean, egiten da diru-batzerik eza-gunena, gosearen eguna ospatuz, baiña edonoz emon leike laguntza.



Zure laguntza eldu egiten da eta zuk ori ziur jakin zeinke.

Bear ba'da, laguntza emoten dauanak laguntza ori doan lekuan dagoanagaz artu-emonak izatea nai izango dau eta orretarako be ba-dago erakunde bat, alkartze-ekintza izenekoa: Zuk laguntzen dautsozun gizonak dauzan ingurua, amesak, oztopoak eta ola-koak jakin gura ba'dozuz, «Esku emonak» erakundeak orretarako lagunduko dautzu. Bilbo'n, España'ko Bankuaren kolean, 3,2n'ean, eskoian daukatzuz eta 4 16 03 68 da euren urrutizkiñaren zenbakia.

Banaka naiz taldeka alegindu gaitazan gure gizadiaren arazo armin oneri erantzuna emoten, al dogun neurrian.

OLAZAR'tar Martin'ek